



AUSARTU ZAITEZ!

Non izango den: UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean .
Gipuzkoako Atala.

Egutegia: 2024ko urria - 2025ko uztaila.

Irakaskuntza mota: Hibridoa.

- 1/3 presentziala offline: Astearte eta Ostegunak, 16:00-19:00, berrikuntza-espazioetan taldeetan lan egitea bertako eta nazioarteko hezitzaile eta profesionalekin batera.
- 1/3 offline: banakako lana eta talde-lana teknologia digitala erabiliz (bileretarako eta eztabaidetarako).
- 1/3 ez presentziala: banakako lana.

Hizkuntzak: Eus/Cas/En.

Prezioa: 3.000 €

Matrikulako gastuen %50 bekatuta egoteko aukerarekin!

info@aldatuz.eus

aldatuz.eus

AL
DA
TU

Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea

EKONOMIA
ETA ENPRESA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE ECONOMÍA
Y EMPRESA

ALDATUZ, BÀLIO SOZIALA SOZTZEKO LABORATEGIA

IRAUNKORTASUNERAKO LIDERGOTZAN ETA ALDAKETAREN KUDEAKETAN ERAGITEKO MASTERRA

AL
DA
TU

EUS | CAS | EN

Mota Berezko Masterra (BM)
Kredituak 60
Plaza kopurua 12

2024/25 2. ED

Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea

EKONOMIA
ETA ENPRESA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE ECONOMÍA
Y EMPRESA



Ausartu zaitez zure etorkizunaren gidaritza hartzera! Enplegu-aukera berriak zain dituzu!

Iraunkortasunerako Lidergotzan eta Aldaketaren Kudeaketan eragiteko Masterra berezko titulua da. ALDATUZ Balioa Soziala Sortzeko Laborategiak sustatu du, zeina UPV/EHUko hezkuntza-espazio espermental berria den.

Esperientzian oinarritutako ikaskuntza programa da, etorkizuneko zure enplegagarritasuna hobetzera eta mugitzen zaituenarekin lerrokatzera bideratua dagoena.

Era berean, ingurune segurua eta egokia da, non zure lidergo-trebetasunak esploratu eta landuko dituzun, diziplina eta kultura anitzeko lantaldeetan parte-hartuz eta motibazioa nola sustatu ikasiz.

Ikaskuntza eraldatzaile eta sortzaileko ingurune batean parte hartu nahi duzu, balio soziala eta iraunkorra sortzen laguntzen duzun aldi berean? Etorkizuna zain daukazu. Ausartu zaitez!

Ikasketa-bide hau esperientzian oinarritutakoa izatea nahi dugu, eta esperientzia osoan lagunduko dizugu, hainbat lanbide-ingurunetan aldaketa-eragile bihurtzeko espazioa ahalbidetuz eta sormen-dosi handiak erabiltzeari desafio eginez. Berrikuntza-prozesuen bidez gidatu nahi zaitugu. Zure programa pertsonalizatu ahal izango duzu, ekintzara pasatzeko motibatzen eta inspiratzen zaituzten erronka nagusiei helduz. Iraunkortasunaren arloko eta hainbat diziplinako adituekin batera lan egingo duzu, zure motibazioan eta zure bizi-helburuan oinarritutako proiektu/artefaktu/MasterAmaierakoLan propioa sortuz.

Talde eta proiektu berritzaileak gidatuko dituzu profesionalekin batera lan eginez eta, batez ere, ametsetatik ekintzara pasatuz!

Ikaskuntza-ingurune berritzaile bat eskaini nahi dizugu, zeina nazioarteko diziplinarteko talde batek diseinatu dagoen. Ingurune horretan, dauden lanetarako zure enplegagarritasuna hobetuko duten trebetasunak eskuratu eta garatu ahal izango dituzu, baina baita etorkizuneko lanetarako prestatu ere. Programaren izaera esperientziala eta diziplina anitzekoa kontuan hartuta, hainbat erakundetan lan egin ahal izango duzu: enpresa pribatuetan, gobernu-erakundeetan, eta GKEetan. Baita nazioarteko kultura eta orientazioa duten tokiko nahiz nazioarteko erakundeekin.

Bidaia hau zure negozioa sortzeko inspirazio gisa ere har dezakezu. Aldaketaren lider gisa gaituta egongo zara, lidergotza eraldatzailearen bitartez, eta beraz, gizarte-berrikuntzaz bultzatua izateko eta gizarte-berrikuntza bultzatzeko gai izango zara.

Bidai honen amaieran gaitasun hauek izango dituzu:

- Diziplina eta kultura anitzeko taldeetan proiektuak kudeatzea (mugaz hara indiko proiektuei buruz pentsatu, adibidez).
- Iraunkortasunerako ezagutzak, tresnak eta esperientziak modu orekatuan konbinatzea (ikus puntu holistiko batetik lan egiten dugu, burua, bihotza eta eskuekin!).
- Balio sozialaren sorrera bermatzea.
- Erabakietan alde arrazionalak eta emozionalak integratzea.
- Gizarte-berrikuntza lidergo eraldatzailetik bultzatzea.
- Zure enplegagarritasuna hobetzea eta mugitzen zaituenarekin lerrokatzea.

IKAS EZAZU TOKI ASKOTARIKO ERAKUNDE ETA DIZIPLINETAKO PROFESIONALEKIN, UNIBERTSITATEKO HARRESIETATIK HARATAGO ZABALDUZ. PREST ZAUDE? IKAS EZAZU TOKI ASKOTARIKO ERAKUNDE ETA DIZIPLINETAKO PROFESIONALEKIN, UNIBERTSITATEKO HARRESIETATIK HARATAGO ZABALDUZ. PREST ZAUDE?

